

ESKAERA: OÑAURREN LOKAL SOZIALA

Oñurreko bizilagunok behin eta berriz eskatu izan dugu gure zonaldean LOKAL SOZIAL bat.

Bizitegi eremu honek eraikuntza aldetik dituen ezaugarri bereziengatik (etxebizitzaren multzo handiak, haietako asko ekimen sozialekoak, berdeguneen nahiz aisialdiko eta jolas-eremuen falta, lokal komertzialen falta, hirigunera oinez joateko zailtasunak...) iruditzen zaigu Lapitze auzoa soilik bizitzeko eremu bat dela gaur egun, baina bizitza propiorik gabekoa.

Batez ere gazteak bizi diren toki bat izan arren, kasu askotan adin txikiko haurrak dauzkatelarik, populazio mota horri dagokion jarduerarik ez da antzematen auzoan eta pentsatzen dugu neurri handi batean aipatutako oinarrizko azpiegitura eta zerbitzu horiek falta direlako gertatzen dela, bizitegi moderno eta gehienbat jende gaztea bizi den toki batean exijitzekoak diren zerbitzuak baitira. Horrek egiten duena da hiriko beste zonalde batzuetara joan beharrean aurkitzea, han aurkitu baitezakegu aisialdia igarotzeko eta gizarteratzeko baldintza hobekak.

Egia da azken urteetan hobekuntza batzuk egin direla: haur parkea eraiki da (hobetzeko beharra du), Jostun plaza egokitzea (oraindik egiteko dago eta aurrekontu parte-hartzaileen bitartez lortu zen), kirol zonaldea (oraindik proiekturik gabe eta aurrekontu parte-hartzaileen bitartez lortua), baina uste dugu hobetzeko oraindik tarte handia dagoela, beti ere horretarako borondatea badago.

Beste urrats bat, eta guretzat oso garrantzitsua, urbanizazioan LOKAL SOZIAL bat edukitzea izango litzateke. Lokal hori auzo elkartekoari lotuta egon liteke eta jarduerak garatzeko oinarrizko azpiegitura izan liteke eta gizarte erreferentziazko zentro bat ere bai, herritarren arteko elkartasun eta gizarte integratzearako toki bat izateaz gainera. Era berean, auzotarrak elkartzeko eta arazoak bideratzeko puntu bat izan liteke, eta auzotarren partaidetzarako ere bai. Iruditzen zaigu parte hartze horrek onurak baino ez dituela ekartzen, herritarren apatiak eta konfiantza faltak hautsi ditzake eta komunitate nortasuna indartu.

Badakigu Udalak ez daukala lokalik zonaldean, baina uste dugu hutsik dauden lokalak badirela eta erabili litezkeela, Udalaren borondatea soilik faltako litzateke eta erosteko edo alokatzeko formula egokia bilatu.

Espero dugu herriko erakundeko arduradunek kontuan hartuko dituztela gure eskaerak eta demandak, horien helburu bakarra baita zonaldeko bizilagunen bizi kalitatea hobetzea.

Gure eskaera abalatzeko, identifikatzearako gure datuak eta sinadura emansten ditugu.